Gartxot, konkista aitzineko konkista animaziozko filmak Itzaltzuko bardoaren kondaira jarri digu ikus eta entzungai. Juanjo Elordik eta Asisko Urmenetak zuzendu dute proiektua, baina egileak askoz ere gehiago izan dira: Gartxot Ekimeneko kideak, Itzaltzu, Zaraitzu eta Zuberoko hainbat eta hainbat bizilagun, Benito Lertxundi eta Olatz Zugasti, Jose Angel Irigaray, Jean Mixel Etxekopare, nanoekoizleak... Egiako auzolana. Istorioa eta sortze prozesua, biak ala biak hunkigarri.

Asisko Urmeneta marrazkilaria iruindarra izan da film honetako zuzendarietako bat eta proiektuaren bultzatzaile nagusia: “Niri betitiki gustatu izan zait kondaira eta niretzako pribilegio bat izan zen halako batean Arturo Campión euskaltegiarekin batera komikia egitea. Gero Argia aldizkariarekin mintzatu ginen eta haiek aukera eman ziguten argitara emateko”. Urte batzuk iraganda, istorio honekin animazio lan bat egin nahi zuten gazte bizkaitar batzuen deia jaso zuen Asiskok. Horrela sortu zen laburmetraia egiteko ideia eta, ondoren, luzemetraia abentura abiatu zen: “Hau oso urrats handia izan da. Ez da erraza izan eta, hasteko, sakonki dokumentatu gara: zaldun ordenak, Aragoiko erregea Nafarroan agintzen... hori dena ulertu behar genuen gero modu egokian kontatu ahal izateko. Askok ikasteaz gain, deskubritu genuen zenbat gauza utzi zituen Campiónek enkriptaturik. Ez zuen ezer aldarrikatzen modu agerikoan, baina ez zuen ezer ere lotu gabe uzten. Zaraitzuko kondaira zaharra bildu eta Gartxot XIIgarren mendean kokatu zuen, Orreaga eta elizaren boterearen aurrean. Campión, genio bat zen”.

AUZOLANA

Gartxoten filma elkarlan baten emaitza izan da. Somuga Animazio estudioak abiaraziko proiektua da, baina bidean Gartxot Ekimena, Itzaltzuko lagunak, eta jende askori esker gauzatu da. Asiskok azpimarratzen duen bezala “Auzolan kulturala, soziala eta sentimentalak izan da. Campiónen narrazioaren hunkidura hori saiatu gara transmititzen berak egin zuen bezala”.

GARTXOT EKIMENA

Gartxot Ekimena Itzaltzun sortu zen Gartxoten oroimena gordetzeko eta zabaltzeko asmoarekin. Urtarrilaren 14 eta 15ean Gartxot Eguna ospatu zuten eta besteak, beste, Elkorretaraino, Gartxoten kobazulorainoko ibilbidea prestatu zuten egun horretarako. Filmaren bultzatzaile nagusiak izan dira eta finantziazioan laguntzeko, "nanoekoizleen" kanpaina martxan jarri zuten: filmeko fotogramak banan banan saldu dituzte dirua eskuratzeko. Informazio gehiago www.gartxotfilma.com Web orrian.



El pasado 18 de noviembre llegó a la gran pantalla la película de animación “Gartxot, konkista aitzineko konkista”, dirigida por Juanjo Elordi y Asisko Urmeneta, que es también autor del diseño de los personajes y coautor del guión. El filme está basado en la novela “El bardo de Izalzu” de Arturo Campión, que recogía, a su vez, una antigua leyenda popular salacencas. Se trata de un gran canto a la libertad y a la defensa de la cultura y los valores propios. En la elaboración de este proyecto han intervenido decenas de personas voluntarias, como los miembros de la asociación Gartxot Ekimena de Izalzu, actores, músicos como Benito Lertxundi o Mixel Etxekopar, artistas de diferentes disciplinas... En la imagen vemos a algunos de los participantes en este “auzolan”, el día del estreno de la película.



Gartxot, Itzaltzuko bardoaren kondaira

Bardo esaten zaio herriaren oroimena eta kultura gordetzen duen kantariari. Eta horixe da Orreagako abade berriak nahi ez duena. Hargatik, Gartxot, bertako bardo, deserriratu eta Mikelot, haren semea, bahituko du latinez kantatuko duen fraide bihurtzeko. Baina Mikelotek ihes egingo du eta berriro hasiko da kantuan aitarekin, herriz herri. Elizak iraintzat hartuko du kantaldi bakoitza eta fraide-gelari beldugarrien esku utziko du aita-semeak harrapatzea.

Aktoreak

“Benito Lertxundi proposatu zigun Gartxoten ahotza jartzeko zein zen berarentzat pertsona egokia: Mixel Etxekopar. Kantaria delako, antzinako musika eta berria berdin maite dituelako. Hortik aurrera konturatu ginen Zuberoko ahotsekin egin behar genuela filmeko zatirik handiena. Zergatik? Zaraitzuko euskara zenaren antzerakoena gaur Zuberokoan hitz egiten dena delako. Zuberokarrek musikarako eta antzerkirako erakutsi duten trebetasuna itzela izan da. Filmari doinu berezia eman diote.”

HIP-HOP NAF

“Es ahora cuando se está empezando a trabajar más”

Pronto, dicen que a principios de abril, llegará la página Web de HIP-HOP NAF, un foro de encuentro para todos los/as amantes de este estilo de música y de este movimiento cultural, que cada vez cuenta con más grupos en Navarra, muchos de los cuales cantan en euskera. El hip-hop, los rappers, skaters, grafiter@s, dj's, breakers... y el euskera ya no es una mezcla exótica.

DJ Paik, de ZTK rap, y losu, de RPV, son dos hip-hoperos de aquí que viven y cantan en euskera. Su música está llena de ritmo y de rimas contundentes. Es la versión local de un movimiento artístico urbano y crítico nacido en Estados Unidos a finales de los años 60 en las comunidades afroamericanas y latinoamericanas de barrios populares neoyorquinos como Bronx, Queens y Brooklyn.

Ze Berri?.- ¿Cuál es el objetivo de este nuevo foro en internet, HIP-HOP NAF?

D.J. Paik.- Básicamente dar a conocer todo lo que se está haciendo, qué grupos están trabajando, qué conciertos se van a hacer, qué se está grabando, etc. Es algo que hasta ahora no ha habido. Podías obtener información a través del myspace de cada grupo, pero para eso tienes que saber que existe. Con la nueva página esto cambia, porque de esta manera puedes obtener mucha información de gente que antes ni conocías y tu nombre también está ahí para que vean lo que haces. Es una manera de promocionarse.

Z.B.- ¿Hay muchos aficionados al hip-hop por aquí?

losu.- Muchísimos. Dentro de poco tiempo se verá todo el movimiento que hay. El rap ha entrado aquí bastante tarde y, a pesar de que ha habido algunos grupos pioneros, como Selektah, es ahora cuando se está empezando a trabajar más.

Z.B.- En el rap ¿todo es protesta?

D.J.P.- Casi todo lo que se hace por aquí sí, porque además aquí siempre ha habido mucha música protesta de estilos diferentes.

Z.B.- También se ven muchos raperos en las listas de superventas. Esos no serán tan



críticos con el sistema...

I.- Hay muchos tipos de rap. Algunos son más poperos, otros son más electrónicos... pero sí que se puede decir que en algunos sitios, en Estados Unidos por ejemplo, está muy popizado en algunos casos. Parece que su objetivo es simplemente vender cada vez más discos.

Z.B.- ¿Los bertsolaris podrían encajar en el estilo hip-hop?

D.J.P.- Para improvisar ellos tienen mucha más facilidad, nos darían una paliza impresionante. Los raperos lo hacen, quizá, más bonito, con música, bases y otros elementos. En el hip-hop, de todas formas, tienes

HIP-HOP NAF ADIERAZPENA

Gure bihotzeko HIP-HOP-zale amorratu horiek, edozein tokitan HIP-HOP-ari bizia emateko zeuen txoko bikia hartzen duzen horiek: herrian, probintzian, nazioartean, zeuen gela ilun zikinean edota zeuen karrrikako kantoi xixtrinean. HIP-HOP-aren gerra santurako deia duzue honakoa. Guztiok toki komun batean elkar gaitzen, borrokarako, geure ideiak defendatu eta zabaltzeko, geure bizitzeko modua aldarrikatzeko, eta egunetik egunera batuxeago egoteko.

B-boy-ak, B-girl-ak, raperoak, graffiteroak, dj-ak, idazleak, ekoizleak, breakers, skaters... guk hauxe izanen dugu gure eta erreferentzia munduaren aurrean eta Nafarroan. Jaio berria da, eta laster ukitu ahal izanen dugu: HIP-HOP NAF (Nafarroako hip-hop gunea).

HIP-HOP NAF ez da soilik nabigatzaileen instalatu duzun beste Web bat gehiago; beste zerbaite izan nahi du. Ataria, plataforma sendoa izan nahi du, mugimendu honetako artista eta parte-hartzaile guztientzako, ari direnen eta ari ez direnen guztientzako, nondik abiatu eta nora jo izan dezagun.

más libertad, no tienes unas pautas tan marcadas como en el bertsolarismo.

Z.B.- ¿Vosotros también improvisáis?

D.J.P.- Se improvisa y se escribe. Hay de todo. Hay gente que los escuchas improvisando y es increíble, porque parece que lo tienen aprendido de memoria.

Z.B.- ¿Tenéis relación los grupos entre vosotros?

I.- Nuestra base es el respeto por el trabajo de los demás. Ese es el vínculo que tienes con la gente. Aquí nos conocemos todos. Todos sabemos un poco de todos, y muchas veces hacemos colaboraciones y tocamos juntos en el escenario.



Fiare
Banca ética/Banku etikoa
Zure interesa, geurea
Compartimos tu interés

Campaña de captación de capital social
Sozietate-kapitala batzeko kanpaina

Promueven/Sustatzaileak



RED
DI LUCHA CONTRA LA POBREZA
Y LA EXCLUSIÓN SOCIAL
POBIZIAKONTA
KONTRAKO SARRA



reas
navarra
red de economía alternativa y solidaria
ekonomia alternatibo eta ekaritasuneraren sarea





navarra@proyectofiare.com - Tlf: 944 153 496

www.fiare.org

¿De qué lugar hablamos?

Nos referimos en esta ocasión a una conocida foz (garganta) en el río Salazar. Con más de 6 kilómetros de longitud y paredes casi verticales de casi 400 metros de altura, es la más extensa e impresionante de las gargantas navarras.



Cuando hablamos de nombres de lugar, es habitual encuadrarlos en un ámbito lingüístico determinado: topónimos de origen euskérico, árabe... Pero hay algunos en los que esta delimitación resulta más complicada y en los que hay que atender a aspectos que suelen pasar desapercibidos. En fin, que ciertos nombres deben ser catados por ojos avezados, de la misma manera que para apreciar todos los matices de un buen vino es preciso tener educados el olfato y el paladar. El caso es que si se vierte nuestro nombre en una copa, lo primero que apreciamos es su toque "francés", ya que *chantré* es palabra de este origen cuyo significado es cantor. Esta voz se especializó en el ámbito eclesiástico de toda Europa como 'dignidad de la catedral, responsable del canto en el coro'. Se trata, siguiendo con la imagen del vino, de un caldo criado a partir de uva de origen francés, pero cultivada desde antiguo en nuestra tierra. Giremos ahora la copa con suavidad y fijémonos bien en su terminación, -ea. Estamos tan acostumbrados a ella, que es fácil no concederle la importancia que se merece, pero lo cierto es que no encontraremos otro nombre igual ni en Francia ni en España. Y no es porque ese tipo de "uva" sea rara. Al contrario, son muchos los nombres formados con esta palabra usados en las lenguas vecinas. En León nos encontramos con el barrio de la Chantría (chantría, en castellano, es el nombre genérico del cargo que desempeña el chantré) y el parque



Txantrea.

del Chantré. En Jaén existe una localidad llamada El Chantré. En París podemos pasear por la rue des Chantres y existen apellidos como Chantré o Lechantré. Pero para pasear por la Txantrea hay que venirse a Navarra. No hay otra opción. Es este, además, el dato que nos pone sobre la pista del origen del sabor irrepetible de nuestro vino: el euskera. Bien porque a la voz chantré (*txantre* en euskera) se le añade el artículo -a, o bien porque -menos probable- la voz chantría se asimila a la terminación -ea. La relación de los chantres de Pamplona con el barrio es antigua y se remonta al año 1255, aunque como to-

pónimo no aparece hasta 1732 como Chandregaña 'el alto de la Txantrea'. Este topónimo es una buena muestra del uso de txantre en euskera, ya que así llamaban burladeses y pamploneses a una zona próxima a la actual calle de Mugazuri. También en euskera encontramos nombres como *Txantresorak* 'campos del chantré' en el valle de Etxauri o *Txantrelarre* 'prado del chantré' en Uharte-Arakil, entre otros. Incluso hoy el chantré de la catedral de Pamplona sigue hablando euskera. De hecho, si preguntáramos al iturrendarra Aurelio Sagaseta cuál es su cargo, nos contestaría amablemente: *Iruñeko txantrea naiz*.

Mikel Belasko

La respuesta al concurso del número 92 de Berri? era: Txantrea

La ganadora del concurso es:

Pili Bermejo González (Burlada-Burlata)

ZORIONAK!

¿De qué lugar hablamos?

Si quieres participar en el concurso ¿De qué lugar hablamos? recorta este cupón y envíalo cumplimentado a la siguiente dirección antes del 29 de marzo. ¡Recuerda que el premio es un fin de semana para dos personas en el Centro de Talasoterapia Hotel Emperatriz Zita de Lekeitio!

Únicamente se admitirá un cupón por persona

Concurso **¿De qué lugar hablamos?**

Concejo de Ustárroz, 9-11 (trasera) · 31016 · Pamplona / Iruña

NOMBRE DEL LUGAR · TOKIAREN IZENA:

Nombre y apellidos · Izen-abizenak

Dirección · Helbidea

Teléfono · Telefonoa



A orillas del Cantábrico, en la villa marinera de Lekeitio, se encuentra el Hotel Emperatriz Zita, construido sobre las ruinas donde habitó la Emperatriz Zita, última emperatriz del Imperio Austro-Húngaro.

El Hotel cuenta con 42 habitaciones, un acogedor restaurante sobre el mar donde se puede degustar la cocina tradicional vasca y un Centro de Talasoterapia, balneario con agua de mar, en el que ofrecemos numerosos tratamientos relajantes, consultas de naturopatía, fisioterapia, iriología, kinesiología, reflexología podal, tratamientos de estética, etc.



TALASOTERAPIA

ZITA

EMPERATRIZ ZITA HOTELA

Santa Elena Etorbidea, s/n
48280 Lekeitio (Bizkaia)
Tel.: 94 684 26 55
Fax: 94 624 35 00
e-mail: ezita@aisiahoteles.com
web: www.aisiahoteles.com

EDUARDO APODAKAK IRABAZI DU ZELAIA SAIAKERA SARIA

Eduardo Apodaka (1965, Bilbo) izan da sariaren hamaikagarren edizioaren irabazlea 'Norberaren autonomia krisian' lanarekin.

Egun norbanakoa kontsumo produktu baten gisa eraikitzen dela dio autoreak, eta plazaren balioa aldarrikatzen du.

Beste zazpi idazlek aurkeztu dituzte lanak sariketaren hamaikagarren edizioan martxorako izango da kalean Apodakaren lana.

«Modernitatean norberatasuna landu beharreko zerbait zen, eta orain ia-ia Eroskin eros daitekeen zerbait». Bortitza da aldaketa eta horren aurrean Eduardo Apodakak dio plaza aldarrikatu behar dela, den bezalakoa, bertan dagoen jende guztiarekin, baita jasangaitzak ere: «Gaur egun gustuko ez dugun auzokidea ezabatu egin nahi dugu gure bizitzatik, eta gure gustuen arabera eraiki nahi ditugu harremanak. Baina pertsona pobrea goa izateko bide bat da hori». «Gustuen arabera egiten ditugu orain harremanak, kontsumo produktu bat balira bezala, baina hain zuzen harremanek egiten gaituzte. Norbera ere bada jendearekiko harreman horien produktu edo emaitza».

«Maitalea bilatzeko enpresa bati ordainketak egiten dizkiogu».

ENTREGA DE LOS CERTIFICADOS BAI EUSKARARI 2011 EN BARAÑÁIN

El pasado 25 de noviembre de 2011, el Ayuntamiento de Barañáin hizo entrega de los Certificados Bai Euskarari a las 37 entidades del municipio que este año han expresado su compromiso público con el euskera, en el modo y medida que cada una de ellas ha considerado más adecuado y factible.

En el acto de entrega, el alcalde de la localidad, José Antonio Mendive, se dirigió a los participantes en castellano y euskera para felicitarles por su trabajo. En su intervención destacó el concepto de "ecología lingüística" y la necesidad de actuar a favor de la preservación de las lenguas, ya que con la pérdida de cada

una de ellas se pierde una visión diferente del mundo.

LEIRE SALABERRIA, SELECCIONADA PARA PARTICIPAR EN LA MUESTRA BOLOGNA CHILDREN'S BOOK FAIR 2012

Leire Salaberria ha sido seleccionada para participar en la importante muestra Bologna Children's



Book Fair 2012, la feria internacional de ilustradores de libros infantiles, que se celebrará en Bolonia en marzo. Entre los 72 profesionales de todo el mundo seleccionados se encuentra Leire Salaberria, ganadora del Premio Etxepare

2010 con su álbum infantil en euskera 'Euria ari duenean'. Este trabajo fue publicado el pasado otoño por la editorial Pamiela y Faktoria K de Libros en euskera, castellano, gallego y bretón.



Reinas de Navarra

El pasado 3 de diciembre se celebró el Día Internacional del Euskara. En la edición de este año la Sociedad de Estudios Vascos-Eusko Ikaskuntza ha querido homenajear a las mujeres que, de una manera u otra, han marcado nuestra historia. Para ello, la Fábrica de Dibujos Kukuxumusu ha diseñado "Euskal emakumeak", una camiseta con las caricaturas y los nombres de 44 importantes mujeres que representan diferentes periodos y las más diversas disciplinas y ámbitos de actuación. La selección se ha llevado a cabo con el asesoramiento de Lola Valverde, profesora de Historia Contemporánea en la Universidad del País Vasco y experta en temática de mujer.

Entre estas mujeres figuran las reinas navarras Juana de Albret y Margarita de Valois, también conocida como Reina Margot, esposa de Enrique III.

El florecimiento de las ciencias y de las artes comenzó en el Reino de Navarra con Carlos III el Noble, continuó con su nieto Carlos, Príncipe de Viana, y tuvo su mayor momento de esplendor durante los reinados de Margarita de Navarra (1492-1549), su hija Juana de Albret (1528-1572) y Margarita Valois (1553-1615).

Como escribió el investigador José María Satrustegi, "el humanismo renacentista que se desarrolla al impulso de la familia real navarra en los siglos XVI y XVII es de talante liberal y está abierto a las inquietudes culturales del momento. Curiosamente, es una andadura liderada por mujeres de gran sensibilidad y sólida formación intelectual".

A Margarita de Navarra se le llamó



Juana de Albret y Margarita de Valois (Kukuxumusu).

"la primera mujer moderna", estudió la filosofía neoplatónica, de moda en la época, y fue la quintaesencia del humanismo. Fue autora, entre otras valiosas aportaciones, de la obra clásica "El Heptameron".

Su hija y sucesora en el trono, Juana, decidida a impulsar el protestantismo calvinista en su reino, encargó y costeó la traducción del Nuevo Testamento al euskera, obra del labortano Joannes de Leizarraga, que tituló "Jesus Crist gure Jaunaren Testamentu Berria". En la época de esta reina, el movimiento cultural renacentista tuvo también aquí importantes manifestaciones, al igual que en el resto de Europa. Fruto de ello es la publicación en 1545 del primer libro impreso en vasco, obra del navarro Bernart Etxepare: Linguae Vasconum Primitiae 'Primicias de la lengua de los vascos', compuesto por una colección de poemas religiosos y otros de tema amoroso.

En su prólogo, el autor quiere mostrar a todo el mundo los valores y la belleza del euskera, subrayando la idoneidad de la lengua vasca para poder tratar cualquier tema y anima a los vascos a sentirse orgullosos por la excelencia de su lengua, al grito de: Euskaldun den gizon orok, altxa beza burua! ¡Que todo vasco hablante levante la cabeza!

Finalmente, Margarita de Valois fundó la «Academia de Navarra» en Pau, y más tarde en París, coincidiendo con el reinado de su esposo Enrique III de Navarra y IV de Francia.

Fueron, por tanto, mujeres realmente importantes en una época en la que, como dice José María Satrustegi, "además del mecenazgo proverbial de la corte, se daba en Navarra el protagonismo activo de las reinas en un siglo poco propicio para las reivindicaciones feministas".

Banpiroak, naziak, erailketak eta arte lapurretak biltzen dituzten istorioak

Misterios, asesinatos y robos por resolver, aventuras interactivas en un tren lleno de vampiros, y la conocida novela “El niño con el pijama de rayas” son los libros que en esta ocasión nos recomiendan estas chicas y chicos de trece años, estudiantes de la Ikastola Paz de Ziganda.



ITSASNE ARANGOIA
“Banpiroen espresoa”
TONY KOLTZ (IÑAKI MENDIGUREN BEREZIARTUK ITZULIA)
 “Hau elkareraginezko nobela da, nik ikasturte honetan ezagutu dudana narrazio mota bat da eta jendeari gomendatuko nioke oso interesgarria iruditu zaidalako. Zu zeu zara protagonista eta bestalde, zuk asma dezakezu nahi duzun istorioa. Adibidez: irakurtzen zoaz eta liburuak esaten dizu kobean montatu nahi baduzu, zortzigarren orrialdera joateko eta oinez joan nahi izanez gero, aldiz, hamabigarren orrialdera. Horregatik da desberdina. Zu, irakurlea, idazle bihurtzen zara. Hogeita hamabi bukaera posible ditu. Banpiroak bizi diren tren batean igo diren bi mutilen abenturak bildu ditu hemen egileak. Niri misteriozko ipuinak gustatzen zaizkit bereziki.”
Banpiro-ehizean zabilza Errumania barruan osaba Andrew eta zeure adiskide Ninarekin. Zaldi gainean gaztelu beldurgarri baterantz zoaztela, beharino lodiak inguratzen zaituzte. Bapatean, otso talde baten erdian aurkitzen zarete. Osabak alde egiten du arrapaladan... baina Nina zalditik erori eta behelainotan desagertzen da. Zer egin behar duzu?



KIKE UNZU
“Pijama marradunaz jantzitako mutikoa”
JOHN BOYNE (MIRENTXU LARRAÑAGA SUESKUNEK ITZULIA)
 “Asko gustatu zait, niri bereziki interesatzen zaizkidalako garai hartako gauzak. Gainera oso irakurterra iruditu zait. Hemen nazien sarraskiak eta konzentrazio eremuen gogortasuna oso ongi adierazten da baina haur baten begiekin begiratuta. Gai hauen inguruko liburuak eta pelikulak gustatzen zaizkit oso kontu harrigarriak direlako. Pelikula ikusi nuen eta asko gustatu zitidanez hasi nintzen liburua irakurtzen. Halere gehiago gustatu zait liburua filma baino, gehiago sartzen zarelako istorioaren barruan. Irakurtea atsegin dut. Abentura eta nobelak irakurtzen ditut bereziki. Normalean nire amak erosten dizkit liburuak.”
Bruno bederatzirteko mutiko alemandarra da, Auschwitzeko buruzagi naziazen semea. Brunoren familiak Berlingo etxe handia eta dotorea utzi behar zuenean hasten da eleberria, Auschwitzera joateko. Bere gelako leihotik Brunok hesiaz bestaldean pijamaz jantzitako jendea, umeak ere tarteant, badaudela ikusi egin zuen, nahiz eta ez zuen ongi ulertzen zertan zebiltzan hor.



MARTIN VENTURA
“Veneziako misterioa”
BJORN SORTLAND (AITOR ARANAK ITZULIA)
 “Misteriozkoa da eta niretzat oso lan polita, istorioan asko sartzen zarelako eta intriga handia sortzen duelako. Ez dakizu zer gertatuko den azken unera arte. Gure adineko, eta are gazteagoentzat ere, gomendagarria ikusten dut ez daukalako irakurtzeko zailtasunik. Niri abentura eta misteriozko liburuak gustatzen zaizkit. Ahal dugunean ikastolan bertan irakurtzen dut, euskara klasean, eta etxean lotara joan aurretik.”
Daviden ama oso artezalea da, haren aita familientzako bidaia-gidaliburuak idazten ari da, Thor anaia txikia oso bizia da eta Sissel, zenbaitetan, nerabe jasanezina da. Davidek hamar urte ditu eta familiarekin munduko hainbat lekutan egindako bidaia kontakutako dizkigu. Eta, nonahi daudela ere, artelanen lapurreta bibixetan nahasirik egongo dira. Oraingo honetan, Venezia.



TERESA ALEGRÍA
“Erinias Taberna”
AMAIA ORMAETXEA IRLATA
 “Misteriozko liburua da eta oso gustura irakurri dut, jakinmin handia sortzen duelako. Hizkuntza txukuna eta hiztegi ulergarria ere baditu. Misterioa da hari nagusia, ez da bortizkeria eszenarik agertzen. Oso erraz sartzen zara pertsonaien barruan eta oso errealismo handikoa da. Abentura, misterioa... halako liburuak irakurtzen ditut nik normalean.”
Liburu honetan Jennifer Haydock poliziaren kasu bat kontatzen da. Bertan, Macrae familiaren etxean sute handia egon da eta bertan aita hil egiten da. Ama ere lehenago auto istripu baten hila zen eta ondorioz eta semeak umezurtz gelditu dira. Poliziak sutea norbaitek eraginda izan dela dio, baino ez dakite nork. Nork eragin zuen sutea? Zergatik?

IMPRESCINDIBLE

Encuentros de la Universidad Pública en la Filmoteca Unibertsitate Publikoaren topaketak Zinematekan

EZINBESTEKO ZINEMA

VEN LOS MIÉRCOLES
A LA FILMOTECA

ZATOZ ASTEAZKENETAN
FILMOTEKARA

?

Universidad Pública de Navarra
 Unibertsitate Publikoa

excelencia internacional
 nazioarteko bikaintasuna

Nafarroako Filmoteka

Armadura Herdoildutako Zalduna (El caballero de la armadura oxidada)

Igela

Hay entre la literatura juvenil y la literatura de adultos (para la mayoría de los críticos, la Literatura) una frontera difusa, una línea que muchas veces se cruza hacia un lado o hacia otro. Me explico: hay libros que hoy en día consideramos literatura juvenil por excelencia, que en su origen se escribieron para un público adulto, pero también se da el caso contrario, libros que en principio se escribieron para jóvenes y que más tarde entran en colecciones de adultos.

Hoy en día, por ejemplo, La isla del tesoro (Altxor Uhartea en su versión en euskera) o la mayor parte de las obras de Stevenson, las aventuras de Sherlock Holmes (Serlock Holmesen abenturak), o El Principito (Printze Txikia), por poner algunos ejemplos, se consideran literatura juvenil, pero en su tiempo su destinatario era el público adulto. Dentro de esta literatura tanto para mayores como para jóvenes, la editorial navarra Igela, el año pasado inauguró la nueva colección Bidelagun, en la que publicó uno de los libros más vendidos de la última década, *Armadura Herdoildutako Zalduna* (El cabal-



llo de la armadura oxidada). Este libro del estadounidense Robert Fisher es ya un clásico de la literatura de autoayuda y en él se nos cuenta la historia de un caballero que se va encerrando en su armadura hasta que esta se oxida y, casi sin darse cuenta, se encuentra preso de ella, por lo que tiene que encontrar el modo de quitársela. La historia va llevando al caballero por distintos escenarios y va conociendo a varios personajes que a la postre le permitirán liberarse de su encierro.

El libro es fácil de leer y el hecho de que sea una gran metáfora, permite al lector hacer una lectura más sencilla, tomándolo como un cuento, u otra más compleja en la que podrá percibir los diferentes momentos de la vida como un aprendizaje, así como el proceso de búsqueda interna del caballero para superar las

barreras que nos impiden amarnos y conocernos a nosotros mismos. Un buen libro que en esta edad tan difícil que es la adolescencia puede ayudar a más de uno y una a encontrar claves para conocerse mejor y valorar tanto las cosas como las personas que tienen-tenemos más cerca y que muchas veces ni las vemos.

Migel Anjel Asiain "Osio",

Profesor y miembro de la Asociación Galtzagorri de Literatura Infantil y Juvenil

Liburuak

"Narrazio guztiak (1979-1990)"

JOSEBA SARRIONANDIA

Elkar

Ipuingintza modernoaren sorrera markatu duen libururik baldin bada, euskaraz, hori Narrazioak izan da, Joseba Sarrionandiak 1983an kaleraturiko kontakizun-bilduma, sentsibiltate berri bat ekarri zuena erabilitako hizkuntzan, kontaeran nahiz gaietan. Hizkera berri bat landu zuen, dotore bezain adierazkorra, kolorez eta oihartzunez bete; teknikan, berriz, esperimentazioetik fantasiaraino egiten

zuen, hango eta hemengo erreferentzia literarioz zipriztinduta; kokalekurako, azkenik, nonahi eta noiznahiko giroak azaltzen ziren,

bidaia exotikoak zein haur begiz oroituriko baserri-bazterrak. 80ko hamarkadan hiru ipuin-bilduma kaleratu zituen iurretarrak: aipaturiko Narrazioak, Atabala eta euria (1985) eta Ipar aldeko orduak (1990). Horiez gain, aurretik idatzitako hiru istorio, orain arte haren liburuetan inoiz sartu gabekoak. Guztiak berriatzi ditu egileak, zuzenketa axalekotik harago, estiloa goitik behera aldatuz baina bere jatorrizko espirituari leial utsiz. Emaizta, klasikoak bezain gaurkoak, irakurle gazteak nahiz antzinakoak liluratzeko modukoak.



"Pantaleon eta bisitariak"

MARIO VARGAS LLOSA / SANTI LEONE (ITZULTZAILEA)

Elkar

Oihanean bakartutako soldaduen sexu-grinak asetzeko, profesionalen konboi sekretuak hasiko dira ibiltzen Peruko Amazonian barrena, eta, Pantoja kapitainaren izaera metodikoari eta antolatzaile-senari esker, halako arrakasta lortuko dute, non armada osoa eta gizartea bera jarriko baitute pil-pilean eta hankaz gora. Kontamolde berritzaile, askotariko eta freskoa erabiliz -gutunak, txostenak, prentsa-zatiak eta elkarrizketa gurutzatuak zuzenean sartuz-, algara pizten duen fartsa bat eraiki du egileak, maisuki eraiki eta garatua, aldi berean hipokrisia sozialaren kritika zorrotza egiten duena.



"Arnaut Abadiaren zoo ilogikoa"

KEPA ALTONAGAREN EDIZIOA BIXITIAK: ASISKOK

Pamiela

Arnaut Abadia jaun kalonjea (Bithiriña, 1843; Beloke, 1916) munta handiko gizona dugu Iparraldeko historian. Larresoroko Seminarioko zuzendaria izan zen ia berrogei bat urtez, eta, halaber, Eskualduna astekariko Laborarier sailaren ardura eduki zuen 1892-1908 tartean. Halandaze, egileak ahanzturaren hauts artetik erreskatatu gura izan du Arnaut Abadia klasiko ezezaguna: berrogeita bost zutabe antologiko bildu ditu Arnaut Abadiaren zoo ilogiko honetan, laborarieren munduko animaliei buruzkoak, Asiskoren marrazkiz egoki hornituak. Arnaut Abadiaren testuok, xumeak baina pitxiak diren heinean, gure behialako letretako lekukotasun aparta dira, eta bai oso interesgarriak gaurko irakurlearentzat ere.

Diskoak

"Montoiaren mundu miresgarria"

XABIER MONTOIA

Bidehuts



Hamar kantu bildu ditu Xabier Montoia bere disko berri honetan. Abestiek, pop estiloko musikatuak, pianoa, gitarra eta txeloaren pizzicatoak dituzte bidelagun. Ia hamar urte joan dira bere azken disko lana kaleratu zuenetik. Oraingo honetarako banda osatu du bi lagun hartuta: pianoa, gitarra, ahotsa eta kalinbarekin laguntzeko Ibon Rodríguez sestaoarra (Eten, Le Noise eta beste hamaika egitasmotan ibilia), eta Maite Arroita Jauregi Murgeso musikari eibararra ahotsa, txeloa eta pianoarekin. Orain arte lau disko argitaratu ditu Montoia bakarka: "Beti oporretan" (1995), "Hemen" (1997), "Lagunak, adiskideak eta beste hainbat etsai" (1999) eta "Ni ez naiz Xabier Montoia" (2002).

Xabi ta Petti

Gaztelupeko hotsak

Lagun arteko diskoa egin dute Xabik ta Pettik, eurak eta entzuleak ongi pasatzeko helburu behinenaekin egindakoa. Disko hau grabatu aurretik, kontzertu ugari eman dituzte, akustikoak eta gordinak baina biziak, beroak eta elektrizitatez beterikoak. Horieta abesti batzuk disko honetan jaso dituzte Xabik eta Pettik, musikari talde zabal baten laguntzaz: Ultracuerpos taldeko Mikelini (kontrabaxua) eta Kiko (gitarra), Rafa Aceves (pianoa), Jose Martinez (bateria), Oscar de la O (kaxoia), L. M. Moreno 'Pirata' (saxofoia) eta Chris Casello (steel guitar), besteak beste. Blues klasiko instrumentalak, kutsu latinoz eta modu akustikoan emandako bertsoak hala nola Pettik sorturiko diskoak jatorrizko kantu bakarra, Satorra soul-blues balada beroa, aurkituko ditugu hemen. Amaitzeko, Steve Marriotten (Small Faces) Every Mother's Son euskarara ekarri dute, Amaren semea, izenarekin.



Zure iragarkia
56.340 postontzitan. Harpidetza doan

**Z E
B E R R I ?**

Tel: 948 13 67 66

Traducciones CCI
Centro de Comunicación Internacional

hizkuntza laguntza
language solutions

soluçiõnes lingüísticas
en todos los idiomas

Monasterio de Iratxe 24
31011 Pamplona-Iruña
948 197 997
www.traduCCI.com

Decóra|me

Descuentos especiales febrero
10% - 20% - 30% - 40% - 50%
Alfombras en stock hasta 50% dto.



PAPEL PINTADO
MURALES
STICKERS
TELAS
CORTINAS, ESTORES
VERTICALES
PANEL JAPONÉS

ENROLLABLES
DUETTES
FACETTE
SILHOUETTE
VENECIANAS
CONFECCIÓN TEXTIL
COLCHAS

EDREDONES
FUNDAS NÓRDICAS
MANTAS
COJINES
RULOS
CUADROS
ESPEJOS

ALFOMBRAS
MOQUETAS
PARQUET
PAVIMENTOS VINÍLICOS
CORCHO
GOMAS, FELPUDOS
PINTURA

Servicios

- Servicio de instalación de todos los productos.
- Sin problemas de aparcamiento.
- Y si necesitas algo que no tenemos te indicaremos donde encontrarlo.

Horario

- **Lunes a viernes:**
de 10:00 a 13:30 y
de 16:15 a 19:45
- **Sábados:**
de 10:00 a 13:30



Pol. Ind. Talluntxe II, C/N Naves 1 y 3 • Tlfno: 948 303 018 - Fax: 948 303 221

www.decorame.es